**ENPRESEI SARE ADIMENDUNEKO ZERBITZUA EMATEKO KONTRATUA / CONTRATO DE PRESTACIÓN DEL SERVICIO DE RED INTELIGENTE A EMPRESAS**

Zalantzaren bat izanez gero, deitu 1771 doako telefono-zenbakira.
En caso de tener alguna duda, llámenos al teléfono gratuito 1771.

Agenteak/Banatzaileak bete beharreko datuak/ Datos a rellenar por el Distribuidor/Agente

| | |
|---|---|
| Izen-deiturak: / Nombre y Apellidos | |
| Salmenten Indar kodea / Código de Fuerza de Ventas: | Herria: / Localidad: |
| Telefonoa: / Teléfono: | Faxa: / Fax |

## ZURE HITZARMENA / SU ACUERDO

Kontratu honen bitartez, ondoko ataleko datuetan adierazten den pertsona fisiko/juridikoak (bezeriak) EUSKALTEL S.A.k atzealdeko baldintza orokorretan eskainitako Telefoniako Zerbitzua kontratatzen du, kontratu honetan xedatutakoaren arabera eta atzealdean azaltzen diren baldintza orokorrak kontuan izanik, hauek ezagutu eta bere osotasunean onartzen ditu.
Pertsona juridikoaren ordezkariak kontratu hau formalizatzeko behar adina ahalmena duela aitortzen du. Aitortzen dituen jarduteko ahalmenak benetan ez baditu, pertsonalki izango ditu obligazioak EUSKALTE S.A.rekin behean sinatzen duenaren eta kontratazio honetan ordezkatzen duen pertsona juridikoaren artean egon daitezkeen obligazio edo ekintzen kaltetan izan gabe.
Por medio del presente contrato, la persona física/jurídica cuyos datos se recogen en el apartado siguiente (el Cliente) contrata el servicio de telefonía detallado en las condiciones generales que figuran al dorso, prestados por EUSKALTEL S.A, según lo dispuesto en el presente contrato y en las condiciones generales que figuran al dorso, las cuales conoce y acepta en su integridad.
El representante de la persona jurídica declara que tienen poderes suficientes para formalizar el presente contrato. En el supuesto de que no tuviera los poderes para actuar que declara tener, quedará obligado con EUSKALTEL S.A. personalmente, sin perjuicio de cualesquiera obligaciones o acciones que puedan existir entre el abajo firmante y la persona jurídica por cuenta de la cual contrata.

En ____________________ -(e)n, a ______-(e)ko de ____________-aren de ______________________-(e)(a)n

Bezeroaren izenean / Por el cliente:

## BEZEROAREN DATUAK / DATOS DEL CLIENTE

| | | |
|---|---|---|
| Enpresaren izena / Nombre de la empresa: | | IFK / CIF: |
| Kalea eta zenbakia / Calle y número: | | |
| Herria / Población: | Probintzia / Provincia: | Posta-kodea / Código Postal: |
| Telefonoa / Teléfono: | Faxa / Fax: | h.el. / e-mail: |
| Kontratatzeko baimena duen pertsona / Persona autorizada a contratar: | | IFZ / NIF: |
| Ahalordetze-data / Fecha de apoderamiento | Ahalorde-protokoloaren zenbakia / Número de protocolo del poder | |

*Aukerakoa/*Opcional

## KONTRATURIKO SARE ADIMENDUNEN KOPURUA / NÚMEROS DE RED INTELIGENTE CONTRATADOS

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| • | Iraupena / duración | | • | Iraupena / duración | |
| • | Iraupena / duración | | • | Iraupena / duración | |

## FAKTURAZIORAKO DATUAK / DATOS DE FACTURACIÓN

☐ Banku-helbideratzea / Domiciliación Bancaria ☐ Dirutan / Pago Metálico

Banku-helbideratzea aukeratzen baduzu, bete datu hauek: / En caso de elegir la opción de domiciliación bancaria, rellene los siguientes datos:

| | |
|---|---|
| Banku-kontuaren titularra: / Titular de la cuenta bancaria: | IFZ: / NIF: |
| Banku-entitatea: / Entidad Bancaria: | |
| Kalea eta zenbakia: / Calle y número: | Herria: / Población: |
| Probintzia: / Provincia: | Posta-Kodea: / Código Postal: |

Kontu korrontearen kodea: / Código Cuenta Corriente:

| Entitatea/Entidad | Sukurtsala / Sucursal | KD / DC | Kontu-Zenbakia / Número de Cuenta |
|---|---|---|---|
| | | | |

Aipatu banku-entitateari baimena ematen diot EUSKALTEL, S.A.k aurkeztutako ordainagiriak goian adierazitako kontutik ordaintzeko.
Autorizo a la entidad bancaria mencionada a pagar de mi cuenta arriba indicada los recibos presentados al cobro por EUSKALTEL, S.A.
Kontuaren titularraren sinadura:
Firma del titular de la cuenta:

En ____________________ -(e)n, a ______-(e)ko de ____________ -aren de ______________________-(e)(a)n

2017ko Iraila / Septiembre 2017

EUSKALTEL S.A.ren egoitza sozialaren helbidea: Parke Teknologikoa 809 -48160 DERIO (BIZKAIA). Bizkaiko Merkataritza Erregistroan Inskribatuta, 3271 liburukian, 212. orrian, B-14727 orrialdean – IFK: A 48766695. / EUSKALTEL S.A. con sede social en Parque Tecnológico, 809-48160 DERIO (BIZKAIA). Inscrita en el Registro Mercantil de Bizkaia, tomo 3271, folio 212, hoja BI-14727-C.I.F. A 48766695

## BALDINTZA OROKORRAK

**1.** Kontratu honen bidez, ondoren azaltzen diren datuak (bezeroak berak aukeratu ditu) dituen bezeroari telefonia-zerbitzua emango dio EUSKALTELek, hiru modalitatetan: Hartzaileak Ordaintzeko Zerbitzu Automatikoa (900 zenbakia) –haren bidez, bezeroak bere gain hartzen du kontratatzen dituen lineara egindako deien kostua–; Ordainketa Partekatuko Zerbitzua (901 zenbakia) –haren bidez, bezeroaren eta deia egiten duen pertsonaren artean ordaintzen dute deia–; eta deia egiten duenak ordaintzen duen zerbitzua (902 zenbakia).

Zerbitzu horiez gain, bezeroak aparte tarifatu ahal izango diren beste zerbitzu edo funtzio batzuk kontrata ditzake. Gainerako guztia arautzeko, kontratu honetan aurreikusitakoa hartuko da kontuan.

Indarrean dagoen araudiaren arabera, ahots-deiak jasotzeko baino ez daude gaituta 900, 901 eta 902 zenbakiak, eta ezin dira erabili telefono finkoetatik deiak egiteko.

**2.** Zerbitzu horietarako abonamendua pertsonala da, eta, beste norbaiti utzi nahi izanez gero, Euskaltelen berariazko baimena behar da.

**3.** Zerbitzu bakoitzarentzat indarrean dauden tarifen eta baldintzen arabera emango ditu EUSKALTELEK zerbitzu horiek. Baldintza hauekin batera jaso ditu Bezeroak tarifak eta zerbitzuak, eta hala adierazten du.

Indarrean dauden tarifei kasu bakoitzean legez aplika daitezkeen zergak gehituko zaizkie.

EUSKALTEL libre da zerbitzuak emateagatiko tarifak edo jarritako baldintzak aldatzeko. Aldaketa horiek bezeroari jakinarazi behar zaizkio, indarrean sartu baino hilabete lehenago.

**4.** Datuen erregistroan agertzen diren ordainketa-baldintzen arabera egingo dio faktura EUSKALTELek bezeroari, eta zerbitzuak jasotzeagatik bezeroak ordaindu behar duen zenbatekoa fakturatuko dio, une bakoitzean indarrean dauden tarifen arabera. EUSKALTELen fakturan zehatz-mehatz azalduko dira ordaindu behar den zenbateko osoaren osagai guztiak. Bezeroak zenbateko hauek ordaindu beharko dizkio EUSKALTELi:

- Alta-kuota
- Hileko kuota finkoa

Egindako kontsumoa (902 zenbakiko zerbitzuak izan ezik)

Bankuko helbideratzearen bidez egingo du bezeroak ordainketa, datuen erregistroan eman duen bankuko kontuaren bidez; eta kontu horretan EUSKALTELi zor dizkion zenbatekoak ordaintzeko besteko saldoa izateko konpromisoa hartzen du bezeroak.

Bezeroak zenbat ordaindu behar duen adierazteko, jakinarazpena bidaliko dio EUSKALTELek aipatutako bankuko kontua duen kreditu-erakundeari, eta jakinarazpen hori jasotzen denean egin beharko da ordainketa.

Zerbitzuaren alta-kuota EUSKALTELen lehen fakturan ordaindu behar du bezeroak. Halaber, hileroko kuota finkoak amaitutako aldiko ordainduko ditu, baita kontsumoagatiko tarifak ere.

Ordainketa egin beharreko egunean, zerbitzuak erabiltzeagatik EUSKALTELi ordaindu beharreko diru-kopurua ordaintzen ez badu bezeroak, ordainketak helbideratuta dauden banketxeari egotzi ezineko arrazoiak direla eta, atzeratzeagatiko interesak berak ordaindu beharko ditu; gainera, konpromisoa ez betetzeagatik sor daitezkeen ondorioak ere bere gain hartuko ditu bezeroak. Atzerapen-tasa ordainketa egin behar zen egunetik aurrera sortuko da, eta aipatutako diruaren legezko interesari ehuneko bi puntu gehituko zaizkio.

**5.** EUSKALTEL sistemetan, instalazioetan eta bezero-zenbakietan aldaketak egin ahal izango ditu, zerbitzuaren antolaketak eta beharrek, edo komenigarritasun eta baldintza tekniko eta/edo legalek eta aurrerapenekoek hori eskatzen dute. Edonola ere, aldaketak egin baino lehen bezeroari jakinarazi beharko zaio.

**6.** EUSKALTELek bermatzen du konputagarriak zaizkion eta bezeroari komunikaziorik eza eragiten dioten matxurek ez dutela izango 4 ordu baino gehiagoko iraupen errealik (hots, adostutako etenak kontuan hartu gabe). Matxurak hauteman orduko eman behar du bezeroak haien berri. Aurreko paragrafoan adierazitako epea matxura jakinarazi ostean hasiko da kontatzen.

Ordu-tartea gainditzeagatiko kalte-ordaina orduko edo ordubete baino tarte txikiagoko fakturatuko da (7,5 €).

Kalte-ordainaren zenbateko osoa ezin da izan, kaltetutako zenbaki bakoitzeko, uneko urtean hileko fakturazioaren batezbestekoa baino handiagoa.

EUSKALTELek ez du inolako erantzukizunik, kontratatutako zerbitzuetan gertatutako akatsak ustekabeko gertakariek, halabeharrak edo bere kontrolpean ez dagoen beste egoeraren batek eragin baditu.

**7.** Kontratu honek iraupen mugagabea izango du, azalean kontrakorik finkatu ezean. Iraupen mugagabea baldin badu, bezeroak hura eteteko aukera du, hilabete lehenago eskaera idatziz eginda.

Kontratua arrazoi hauengatik amaituko da:

a) EUSKALTEL zerbitzu horiek emateko gaitzen duen titulua iraungi delako. Hori gertatuz gero, bezeroak ez du kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango.

b) Aldeetako batek kontratu honetan aurreikusten diren betebeharrak betetzen ez baditu, beste aldeak kontratua hauts dezake. Kontratuak 30 egun baino gutxiagoko iraupena badu, bezeroak hilabeteko kuota ordaindu behar du, gutxienez.

**8.** Bezeroak kontratu honetan jasotako baldintzaren bat betetzen ez badu, EUSKALTELek zerbitzua bertan behera utzi eta kontratua eten dezake, aurrez jakinarazita.

Halaber, bezeroak ez badu zerbitzua behar den bezala erabiltzen, zerbitzua eteteko edo kontratu hau salatzeko eskubidea du EUSKALTELek. Hala ere, eragindako kalte-galerak direla eta, dagozkien kalte-ordainak ordaindu behar dira.

Bezeroak eskatutako aldaketak egiteko edo zerbitzu berrietan alta emateko behar beste denboran eten ahal izango du zerbitzua EUSKALTELek.

**9.** EUSKALTELek konpromisoa hartzen du garapen teknologikoaren arabera neurriak hartzeko eta elementu teknikoak instalatzeko. Garapen horrek aukera emango du EUSKALTELen sarearen bidez seinalearen edukiaren isilpekotasuna bermatzeko, betiere indarrean dagoen legedia errespetatuz. EUSKALTEL ez da inola ere erantzule izango hirugarrenek telefono-elkarrizketak grabatu edo bidean atzematen badituzte, ezta horiek erabili edo zabaltzen badituzte ere. Halaber, Euskalteli egozterik ez dagoen ekintza edo hutsegiteen ondorioz Euskaltelen telefono-zerbitzuaren bidez egindako telefono-komunikazioen konfidentzialtasuna eta sekretua hausten edo urratzen bada, EUSKALTEL ez da erantzule izango.

**10. ABALA**

Banku-abala (lehen eskarian betearaztekoa) eman beharra dauka bezeroak, Euskaltelek hala eskatzen badio, solidarioki bermatuz –espresuki uko eginik ordena-, baztertze- eta banaketa-onurei eta legokiokeen beste orori– kobratzeko dauden zenbatekoen ordainketa eta Euskalteli legozkiokeen erantzukizunak, kontratu hau betearazteagatik sortuak betiere. Bezeroaren kontura

## CONDICIONES GENERALES

**1.** Mediante el presente contrato EUSKALTEL prestará al cliente cuyos datos quedan reseñados, de acuerdo con la selección realizada por éste, el servicio telefónico en la modalidad denominada Servicio de Cobro Revertido Automático (Línea 900) mediante el cual el cliente del servicio se hace cargo del coste las llamadas realizadas a las líneas que contrata, el Servicio de Pago Compartido (Línea 901) mediante el cual se facilita la compartición por el cliente del servicio y la persona que efectúa la llamada y el servicio mediante el cual el llamante abona de forma integra la llamada (línea 902).

Además de dichos servicios el cliente podrá contratar servicios o funcionalidades adicionales que podrán ser objeto de tarifas independientes, rigiéndose en lo demás por lo previsto en este contrato.

De acuerdo con la normativa vigente, los números 900, 901 y 902 únicamente están habilitados para la recepción de llamadas de voz, no siendo posible utilizar dicha numeración para llamadas originadas desde un teléfono fijo.

**2.** El abono a estos servicios es personal y sólo podrá cederse con el consentimiento expreso de Euskaltel.

**3.** Estos servicios se prestarán por EUSKALTEL conforme a las tarifas vigentes en cada momento para cada uno de los servicios y condiciones establecidas en el presente contrato, que el Cliente declara haber recibido junto con las presentes condiciones.

Las tarifas vigentes se incrementarán con los impuestos que en cada caso resulten legalmente aplicables.

EUSKALTEL podrá modificar libremente las tarifas o las condiciones establecidas para la prestación de los servicios. Dichas modificaciones serán notificadas al cliente, con un mes de antelación a su entrada en vigor.

**4.** EUSKALTEL facturará según consta en las condiciones de pago expresadas en el registro de los datos, al cliente la cantidad que éste deba abonar a aquella por la prestación de los servicios de conformidad con las tarifas vigentes en cada momento. La factura de EUSKALTEL detallará los distintos componentes de la cantidad total a abonar final. El cliente deberá satisfacer a EUSKALTEL las siguientes cantidades:

- Cuota de alta
- Cuota mensual fija

Consumo efectuado (salvo los servicios de Línea 902)

El pago se realizará por el cliente mediante domiciliación bancaria de las facturas en la cuenta bancaria que el cliente ha indicado en el registro de los datos, comprometiéndose el cliente a mantener siempre saldo suficiente en dicha cuenta para atender el pago de las cantidades debidas a EUSKALTEL.

La fecha en que se deberá realizar el pago será aquella en la que la entidad de crédito en la que esté abierta la cuenta bancaria reciba la notificación de EUSKALTEL con el importe de las cantidades a abonar por el cliente.

El cliente deberá abonar la cuota de alta en la primera facturación del servicio realizada por EUSKALTEL. Asimismo satisfará por periodos vencidos el pago de las cuotas mensuales fijas, y el de las tarifas por consumo.

El impago por parte del cliente a EUSKALTEL de las cantidades debidas por la utilización de los servicios en la fecha en que se deba realizar el pago, debido a causas no imputables a la entidad de crédito en la que se domicilien los pagos, implicará la obligación para el cliente de pagar intereses de demora, sin perjuicio de las demás consecuencias que pudieran derivar de sus incumplimientos. El tipo de mora se devengará desde la fecha en que el pago debió realizarse, siendo dicho interés legal del dinero más dos puntos porcentuales.

**5.** EUSKALTEL podrá introducir, notificándolo previamente al cliente, los cambios en los sistemas, instalaciones y numeración del cliente y los que exija la organización y necesidades del servicio o la conveniencia u condicionamientos técnicos y/o legales y de progreso.

**6.** EUSKALTEL garantiza que las averías que le sean computables y que supongan incomunicación del cliente, no superarán en duración efectiva, esto es, descontando las paradas del reloj de franqueo consensuado, 4 horas. El cliente deberá comunicar las averías desde el momento en que tenga conocimiento de las mismas. El plazo señalado en el párrafo anterior se computará desde que se realice dicha comunicación.

La indemnización por superar el margen horario se contabilizará por hora o fracción inferior, 7,5 €

El importe total de indemnización no podrá superar la media de facturación mensual del año en curso por número afectado.

EUSKALTEL queda exonerada de toda responsabilidad en el supuesto de que las deficiencias producidas en el servicio contratado sean ocasionadas por caso fortuito o fuerza mayor o cualquier otra circunstancia fuera de su razonable control.

**7.** El presente contrato tendrá una duración indefinida salvo que ésta sea fijada en la carátula. En caso de que tuviera una duración indefinida, el cliente podrá resolverlo mediante notificación escrita con un mes de antelación.

El contrato se resolverá por las siguientes causas:

a) Extinción del título que habilita a EUSKALTEL para la prestación de los servicios, sin que de ello se deriven derecho del cliente a indemnización alguna.

b) Se resolverá por cualquiera de las partes por incumplimiento por parte de la otra de las obligaciones que se preceden en el presente contrato. En el caso de que el contrato tenga duración menor de 30 días el cliente vendrá obligado a abonar de la cuota de abono mínima de un mes.

**8.** Si el cliente incumpliese cualquiera de las condiciones estipuladas en el presente contrato, EUSKALTEL podrá suspender el servicio y resolver el contrato, previa notificación

Asimismo en el caso de una actuación anormal sobre el servicio por parte del cliente, EUSKALTEL se reserva el derecho a suspender el servicio o a denunciar el presente contrato, sin perjuicio de las indemnizaciones derivadas de cualquier acción por daños y perjuicios.

EUSKALTEL podrá suspender el servicio durante el tiempo que sea necesario para realizar las modificaciones o el alta en nuevos servicios solicitados por el cliente.

**9.** EUSKALTEL se compromete a la adopción de las medidas y a la instalación de los elementos técnicos a su alcance, en función del desarrollo tecnológico, que permitan garantizar el secreto del contenido de la señal a través de la red de EUSKALTEL en cumplimiento de lo previsto por la legislación vigente. EUSKALTEL quedará exonerada de toda responsabilidad que pueda derivarse de la obtención por terceros de conversaciones telefónicas grabadas o interceptadas, así como de la responsabilidad que deriva de su uso o divulgación. También quedará exonerada de cuantas acciones u omisiones ajenas a EUSKALTEL que violen o quebranten la confidencialidad y el secreto de las comunicaciones telefónicas realizadas a través del servicio prestado por ella.

**10. AVAL**

El cliente se obliga, a requerimiento de Euskaltel, a entregar un aval bancario, ejecutable a primer requerimiento, garantizando solidariamente, con renuncia expresa a los beneficios de

izango dira abalaren mantentze-kostuak, eta horietatik kanpo utziko du –espresuki– Euskaltel.

Euskaltelek abala eskatuz gero edo abala iraungi delako berritu delako, kontratu hau eteteko arrazoitzat joko da 15 eguneko epean hura ez aurkeztea, eta bezeroak ez du kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango.

Kontratu honek irauten duen epe osoan egon behar du indarrean abalak, edo, bestela, bezeroak zor dituen zenbateko guztiak ordaindu arte.

Bezeroaren kreditu-kaudimenaren analisia egingo du Euskaltelek, abalaren zenbatekoa zehazteko. Analisi hori egiteko beharrezko informazio guztia eman behar dio bezeroak Euskalteli.

Kontratu honen ondorioz egin beharreko eragiketa komertzialak eta kontratuan sartzen diren zerbitzuak ematearekin lotutakoak –bezeroak Euskaltelen alde bermatu beharreko eskubideak izan ditzaketenak– egitea hitzartzen badute bi aldeek, lehen aipatutako abalaren zenbatekoa handitu ahal izango da, edota Euskaltelek abal gehigarriak eskatu ahal izango ditu bezeroak eragiketa komertzial horiek ordaintzen dituela bermatzeko.

**11.** Bezeroak erreklamazioak aurkeztu ahal izango dizkio EUSKALTELi, erreklamazioa eragin duen gertaeraren berri izan duenetik hilabeteko epean.

**12.** Euskaltelek kontratu hau alda dezake, indarrean dagoen legeriaren arabera eta aurrez bezeroari idatziz jakinarazi eta gero. Bezeroa aldaketarekin ados ez badago, EUSKALTELi jakinaraz diezaioke –jakinarazpena jaso eta hilabeteko epearen barruan– kontratua hautsi egin nahi duela. Epe hori igaro bada eta EUSKALTELek jakinarazpenik jaso ez badu, bezeroak aldaketak onartu dituela ulertuko da.

**13.** Bezeroak kontratu honetako telekomunikazio-zerbitzuak emateko kontratua egiten du EUSKALTELekin, une bakoitzean indarrean dagoen Espainiako araudiari lotuta.

### 14. ZENBAKIEN HAUTAKETA ETA ERRESERBA

**A.** Bezeroak 900, 901 eta 902 lineetako zenbakiak aukeratu ahal izango ditu, EUSKALTELek erabilgarri dituenen artean.

Halaber, zerbitzua aktibatu aurretik erreserbatu ditzake bezeroak zenbaki horiek.

Zenbaki horiek kontratatzen den zerbitzuaren titularrak erreserbatu behar ditu.

Kontratatzen den zerbitzuaren titularra balia daiteke eskubide horietaz.

Eskubide horietaz baliatzea titularrari dagokio, eta ez dizkio erreserbatutako zenbakiak beste inori utzi behar, EUSKALTELen berariazko baimenik izan ezean.

**B.** Erreserbatuta dauden eta erabiltzen ez diren zenbakiak EUSKALTELek desaktibatuko ditu, bezeroak hala eskatzen dionetik zazpi eguneko epean.

Erreserbatutako zenbakiak berraktibatu nahi izanez gero, behar besteko aurrerapenez eskatu behar du bezeroak, EUSKALTELek horretarako beharrezko ekintzak egin ditzan.

**C**. Indarrean dauden tarifen arabera emango ditu zerbitzu horiek EUSKALTELek. Bezeroak zenbateko hauek ordaindu beharko dizkio EUSKALTELi:

- Alta-kuota
- Hileko kuota finkoa

Alta-kuota EUSKALTELen lehen fakturan ordaindu behar du bezeroak. Gainera, hileko kuota finkoak aurrez ordainduko ditu.

**D**. Erreserbari dagozkion zenbatekoak ordaindu behar diren datarako ordaintzen ez badizkio bezeroak EUSKALTELi –ordainketak helbideratu diren kreditu-erakundeari ez dagozkion arrazoiengatik–, erreserba galdu egingo da.

**E.** EUSKALTELen Planean eta/edo zenbakien esleipenean aldaketarik izanez gero, EUSKALTELek bezeroari jakinaraziko dio, hark erabilgarri dauden zenbakiak aukeratzeko eta/edo erreserbatzeko eskubidea balia dezan.

orden, excusión y división y cualquier otro que pudiera corresponderle, el pago de las cantidades pendientes de cobro y las posibles responsabilidades debidas a Euskaltel, todo ello derivado de la ejecución del presente contrato. Los costes de mantenimiento del aval serán de cuenta del cliente, con expresa indemnidad para Euskaltel.

Requerido inicialmente el aval por parte de Euskaltel, o bien su renovación por transcurso del plazo del mismo, su no presentación en el plazo de 15 días por parte del cliente será causa de resolución del presente contrato sin derecho a indemnización para el cliente.

El aval deberá estar vigente durante toda la duración y vigencia del presente contrato, o en tanto el cliente no haya completado el pago de todas las cantidades debidas.

El importe del mismo vendrá determinado por el análisis de solvencia crediticia del cliente que Euskaltel realice. En este sentido el cliente se obliga a proporcionar a Euskaltel toda aquella información que sea relevante para el resultado de este análisis.

En el caso de que las partes acordaran la realización de operaciones comerciales derivadas de la ejecución del presente contrato y asociadas a la prestación de los servicios incluidos en el mismo en las que pudieran existir derechos a garantizar por el cliente a favor de Euskaltel, podrá ampliarse el importe del aval referido anteriormente, o bien Euskaltel podrá requerir avales adicionales para garantizar el pago por el Distribuidor de dichas operaciones comerciales.

**11.** El cliente podrá presentar reclamaciones ante EUSKALTE en el plazo de un mes desde que se tenga conocimiento del hecho que las motive.

**12.** El presente contrato podrá ser modificado de conformidad con la legislación vigente y previa notificación escrita al cliente. Si el cliente no estuviera conforme con la modificación podrá comunicar a EUSKALTEL su voluntad de resolver el contrato en un plazo de un mes desde que reciba la notificación, transcurrido el cual sin que ESKALTEL haya recibido notificación alguna, se entenderá que el cliente acepta las modificaciones.

**13.** El cliente contrata con EUSKALTEL con sujeción al régimen que en casa momento establezca la normativa vigente española para la prestación de los servicios de telecomunicaciones objeto del presente contrato por EUSKALTEL.

### 14. ELECCION Y RESERVA DE NÚMEROS

**A.** El cliente podrá elegir los números de las Líneas 900, 901 y 902 de entre los que EUSKALTEL tenga disponibles en cada momento.

Asimismo, el cliente podrá reservar dichos números con carácter previo a la activación del servicio.

La reserva de dichos números será realizada por el titular del servicio que se contrate.

El ejercicio de estos derechos será realizada por el titular del servicio que se contrate.

El ejercicio de estos derechos es personal no pudiendo cederse los números reservados salvo consentimiento expreso de EUSKALTEL.

**B.** La desactivación de los números durante el plazo en que no se utilicen pero se mantengan reservados será realizado por EUSKALTEL en el plazo de siete días desde la comunicación del cliente.

La reactivación de los números reservados será solicitada por el cliente con un preaviso suficiente a fin de que EUSKALTEL pueda realizar las acciones necesarias para realizar dicha activación.

**C.** Estos servicios se prestarán por EUSKALTEL conforme a las tarifas vigentes en cada momento. El cliente deberá satisfacer a EUSKALTEL las siguientes cantidades:

- Cuota de alta
- Cuota mensual fija

El cliente deberá abonar la cuota de alta en la primera facturación realizada por EUSKALTEL. Asimismo satisfará por periodos anticipados el pago de las cuotas mensuales fijas.

**D.** El impago por parte del cliente a EUSKALTEL de las cantidades debidas por la reserva en la fecha en que se deba realizar el pago, debido a causas no imputables a la entidad de crédito en la que se domicilien los pagos, implicará la pérdida de la reserva.

**E.** En caso de que produzcan modificaciones en el Plan y/o asignación de numeración de EUSKALTEL, ésta lo notificará al cliente a fin de que pueda ejercer la facultad de elección y/o reserva sobre los números disponibles.